



## Dendariekin, ostalariekin eta taxilariekin egindako bileraren akta

### Gaia: Kale Nagusia berritzea

Taldea, 2014ko urriaren 9an, 14:30etik 16:30era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan bildu da.

- Dendariekin, ostalariekin eta taxilariekin egindako lehenengo gogoeta eta lan partekatua.
- Hauek hartu dute parte:

## Kale Nagusiko merkataritzako eta ostalaritzako ordezkariak:

- Rafael Urcelay – Urcelay zapata-denda
- Iñaki Ruiz de Eguilaz – Karibe Berria taberna
- Izaro Cantera – Karibe Berria taberna
- Jone Albizu – Algar argiztapena
- Joseba Arakama – Arbe kirolak
- Maialen Arakama – Arbe kirolak
- Jaione Gurrutxaga – Gurrutxaga taberna
- Albon Retegi – Oskarbi optika
- Juan Cruz Fernandez – Juan Cruz ileapaindegia
- Juan Mari Ibargutxi – Ibargutxi kirolak
- Mila Elorza – Ibargutxi kirolak
- Mattin Osinalde – Attiko
- Eduardo Gonzalez – Ogi Berri okindegia
- Kloti Osinalde – Lanbroa
- Jon Zubizarreta – Eroski
- Cristina Urmeneta – Cristina jantziak
- Itziar Alberdi – Alberdi jantziak
- Aranzazu Emparanza – Aranzazu optika
- Elena Ronda – Poxpolin

## Udal ordezkariak:

- Kepa Urzelai, alkatea.
- Rakel Puente, zinegotzia.
- Ane Mendinueta eta Aitziber Olarte, arkitektoak.
- Fernando Agirre, Udaltzainburua.
- Mikel Ramirez eta Aitor Mendia, Urola Garai eskualdeko merkataritza sustatzeko bulegoko teknikariak.

Eta Prometea enpresako Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, dinamizatze-lanak egin dituztenak.

Ikus dezagun jarraian nola joan den tailerra eta zein ondorio atera ditzakegun bertatik. Hona hemen, beraz, **edukien eskema**:


1. Abiapuntua: Zergatik? Zertarako?
2. Kale Nagusia diseinatzeko lan partekatua: nola?
3. Dendariekin, ostalariekin eta taxilariekin gaurko tailerra:
  - Helburuak
  - Landu eta eztabaidatu diren gaiak
  - Emaidza nagusiak
4. Hurrengo urratsak

## 1. Abiapuntua: Zergatik? Zertarako?

Legazpiko Udalak **Kale Nagusia berritzeko lanak hasi** nahi ditu datorren **2015eko urtearen erdialdean**.

Kepa Urzelai alkateak adierazi digunaren arabera, **jarduketa honekin**:

- 2008ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zen Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasotako proposamen nagusiari erantzuten zaio; beste gauzen artean proposamen horrekin oinezkoentzako ibilbide-sare bat eskaini nahi da.



- 2013ko urtarrilean Legazpiko Agenda 21eko Foroak Hirigintza arlorako markatu zuen lehentasunezko gai bati erantzuten zaio.

## Agenda 21eko Foroarekin adostutako lehentasunak –2013ko urtarrila–

1. **Santikutz kalean** jardutea ("La serena" izeneko aldapa): obra horiek datorren astean hasiko dira.
2. **Aizkorri kalean** 2-16an jardutea (udaletxearen parean) oinezkoei lehentasuna emateko: bukatzen ari dira obrak.
3. **Nafarroa kalea** oinezkoentzako egokitzea: bukatuta daude obrak.
4. **Laubide** auzoan (atari bakoitiak) jardutea: aurreproiektua eginda dago eta obrak 2015ean burutzea aurreikusten da.
5. **Aizkorri kalea 20-26an** jardutea: espaloia altxatzea eta Txorronean agian errotonda egitea: teknikoki kontu zaila da eta aztertzen ari dira.
6. **Urtatza** 40-51ko espaloia: bukatuta.
7. **Kale Nagusia** oinezkoentzako egokitzea.



- Eta orain bi arrazoiengatik planteatzen da gai hau: alde batetik, Hirigintza mailan egin diren jarduketan logikak hala eskatzen duelako –adibidez, lehenbizi Nafarroa kalea berritu da eta ondoren Kale Nagusia berritzea proposatzen da–; eta bestetik, Udalaren egoera ekonomikoak aukera ematen duelako horretarako.

## 2. Kale Nagusia diseinatzeko lan partekatua:

Kale Nagusia berritzeko lanak proiektu garrantzitsua da Legazpirako: berriro irudikatu behar dugu udalerriko kale garrantzitsuena, bertako protagonista berriz oinezkoa izan dadin, merkataritza indartzeko, elkarrekin egoteko eta gozatzeko eremua sortzeko ...






Nola egin hori? Legazpiko Udalak **Kale Nagusiarekin harreman zuzena duten pertsonekin eta agenteekin landu nahi du kale berriaren diseinua**. Honako hauekin zehazki:

- Kale Nagusiko bizilagunekin eta ideiak eskaintzera animatuko diren legazpiarrekin.
- Kale Nagusiko merkatariekin, ostalariekin eta taxilariekin.
- Legazpiko ikastetxeetako –Domingo Agirre eskola, Haztegi Ikastola eta Olazabal institutua- haur eta gaztetxoekin, Eskola Agenda 21aren barruan lan berezia eginez.

Helburua hauxe da: kale berriari eskatzen dizkiogun beharrak eta ikuspegi desberdinak batzea eta horiek Legazpiko Udalak 2015eko hasieran Kale Nagusi berrirako egingo duen proiektuan jasotzea.

Hori dena noiz? **Egunei eta epeei** dagokienez, hauxe da proposamena:



## 3. Gaurko tailerra dendariekin, ostalariekin eta taxilariekin

Hasteko gaiaren aurkezpena egin dugu eta horrek gaia kokatzen lagundu digu; ondoren, tailerrari eman diogu hasiera. Ikus dezagun urratsez urrats.



### Helburua

Gaurko tailerrean hauxe da bilatzen duguna Kale Nagusiko dendariekin, ostalariekin eta taxilariekin gaia partekatzea eta kalearen etorkizuneko diseinua nolakoa izango denari buruz haien iritzia eta ikuspegia ezagutzea.

Ñabardurak bilatzen ditugu, Kale Nagusiko agenteen errealitatea eta begirada ezagutu nahi dugu.

### Landu diren gaiak eta abiapuntuko informazioak eztabaidarako

Taldearen gogoeta eta lana funtsezko 2 kontutan zentratu da:



1. Kale Nagusiak, zein neurriraino izan behar du oinezkoentzako?
2. Dendarien, ostalarien eta taxilarien ikuspegitik, zer eskatzen diogu kale berriari? Zer eduki behar du?

- Kale Nagusiak, zein neurriraino izan behar du oinezkoentzako?

Hauxe da abiapuntuko informazioa:

- 2008an onartu zen **Mugikortasun Iraunkorreko Planak** markoa zehazten digu:

“Kale osoa oinezkoentzako egokitzea proposatzen da, elizatik hasi eta Urola kaleko bidegurutzeraino (Urretxu-Bergaratik Oñatira doan bideraino).

Kalearen **lehenengo zatia**, Patrizio Etxeberria kaleko bidegurutzetik Santikutz kaleko bidegurutzeraino doana, **erabat itxita egongo litzateke trafikorako** eta ordutegi zehatz batean baimenduko da soilik zamalanak egitea.

**Bigarren zatia**, Santikutz kaleko bidegurutzetik Urola kaleraino doana, ez da beharrezkoa ikusten oinezkoentzako soilik izatea. Eremu horretan **egonaldi motzak onar daitezke** baina ez motordun ibilgailuak aparkatzea. Aldi baterako geratzeko aukera eskaintzea planteatzen da, oinezkoen eremuan zerbait egiteko aukera ematearren.”

- Hori oinarri hartuta, elizatik taxi-geralekura doan Kale Nagusiko tartean aurrera eramango den jarduketa zehaztuta eta itxita dago:



- Tarte hori erabat oinezkoentzako izango da.
- Funtzionamendua, Laubide auzokoaren eta Nafarroa kalearen antzekoa izango da:
  - Ezingo dira autoak bertatik igaro eta bertan aparkatu.
  - Tabernak eta dendak hornitzeko zamalanen ordutegia: 7:30etik 13:30era, astelehenetik larunbatera.
  - Bereziki egokituko dira zamalanetarako lekuak.
  - Salbuespenezko egoerak: zamalanetarako ordutegira egokituko dira edo udaltzainei deituko zaie.
  - Urrutiko kontrolagailua izango dute: suhiltzaileek, Ertzaintzak, Eguneko zentroko garraiokoek...
  - Garajeetako jabeek: urrutiko kontrolagailua izango dute.



- Erabaki gabe dago, taxi-geralekutik Urola kalera doan tartea zein neurriraino izango den oinezkoentzako:



Funtsean, **2 aukera** planteatu dira:

- **% 100 oinezkoentzako izatea.**
  - Lehenengo tartearen funtzionamendu bera izango litzateke hemen ere.
- **Tarte horretan ibilgailuak aldi baterako aparkatzen uztea baina eginbehar motzak egiteko bakarrik:**
  - Ibilgailuak une batez aparkatzeko lekuak egokituko lirateke -8 edo 10 plaza gehienez- eta ordubeteko denbora utzi daiteke egin beharrekoak egiteko.
  - Tabernak eta dendak hornitzeko zamalanetarako ordutegi bera izatea proposatzen da (7:30etik 13:30era, astelehenetik larunbatera) eta horretarako lekuak egokituko dira.
- Azkenik, esandakoaren ondorioz **sor daitezkeen egoerak** azaldu dira eta har daitezkeen neurri batzuk adierazi dira:
  - Obra egingo dela aprobetxatuz, lurrazpiko azpiegitura guztiak berrituko dira -kolektorea, eta abar-. Modu berean, egokitu egingo lirateke hondakinak biltzeko edukiontzien lekuak -biltzeko kamioia ez litzatekeelako kaletik pasatuko-.
  - Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzen bada -% 100 zati batean eta bestean ikusi egin behar- gaur egun kalean dauden aparkatzeko 50 plaza kenduko dira.

Horri erantzuteko, Udalak aukera desberdinak planteatu ditu:

- 34 plaza berri egokitu dira Zubialde eremuan.
- Plazaola kalean eta denden ordutegian, txandakatzeko plaza batzuk egokitu daitezke -Kale Nagusian egin beharrekoak dituzten herritarrentzako-.
- Eguneko ordu zehatz batzuetan Junetorri autobusa Kale Nagusitik pasa dadila azter daiteke, ibiltzeko zailtasunak dituztenek egin beharrekoak eroso egin ditzaten.
- Lurpeko aparkalekuan lekua egoten da.
- Azpikoetxen aparkalekua egokitu da.
- Kalea oinezkoentzako egokituz gero, eragin zuzena eta ona du pertsonen osasunean: oinez ibiltzera bultzatzen du, bizia ematen dio kaleari.... Eusko Jaurlaritzak gai hori lantzen ari da eta udalerrietan aurreikusten diren jarduketetan faktore hori (osasuna) aintzat hartzea aztertzen ari da.



- Zer eskatzen diogu kale berriari? Zer eduki behar du?

Oinezkoentzako erabilera-maila zehazteaz gain, Kale Nagusiaren diseinuak beste gauza asko izatea bilatzen dugu: leku bizia izatea, atsegina, adeitsua, desberdina, dendekin, erabilera desberdinak bultzatuko dituen,....

Nola bizi nahi dugu Kale Nagusi berria? Eta horren arabera, zer eskatzen diogu kale berriari? Zein osagarri izan behar ditu? Hau da eztabaidatu beharreko bigarren kontua.

- Momentuz, badakigu udalerrri gisa "gaur zer eskatzen diogun Kale Nagusiari".

Kale Nagusian ekitaldi desberdinak burutzen ditugu...

- Danborradak
- Santikutz klasika
- Olentzeroren errondak
- Inauteriko desfilea
- Erregeen kabalgata
- Erraldoiak eta buruhandiak
- Beste ekitaldi batzuk: txarangak, "Dendak kalera"...

Beraz, eremu zabala izatea inportantea dela uste dugu eta hori da irizpideetako bat.

- Eta kanpora ere begiratu dugu -Donostia, Friburgo, New York-, eta eremu publikoak oinezkoentzako egokitzeko azkeneko joerak ikusi ditugu.

Hauxe izan da guarko tailerrean landu nahi izan dugun bigarren kontua, betiere dendarien, ostalarien eta taxilarien ikuspegitik.

## Emaitzak eta ondorio nagusiak

Aipatutako 2 eztabaida gaiei dagokienez, jasotako ideia nagusiak ikusiko ditugu segidan; hauek dira tailerraren emaitzak.



- Kale Nagusiaren bigarren tartea –taxi-geralekutik Urola kalera doan tartea- oinezkoentzako eremua izan behar al du?

Dendari, ostalari eta taxilari zareten aldetik, garrantzitsua da zuen ikuspuntua; planteatu diren 2 aukeretan zeintzuk izango lirateke aldeko arrazoiak eta zeintzuk kontrakoak?

Ariketa honi esker argudioak partekatu ditugu; sarritan errepikatu egiten diren argudioak dira –alde nahiz aurka-, pertsona bakoitzaren ikuspuntuaren arabera.

	1. Aukera % 100 oinezkoentzako	2. Aukera Autoarekin gutxieneko elkarbizitza
<b>aldeko arrazoiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaleak lasaitasuna irabaziko luke.</li> <li>• Kale Nagusi osoa oinezkoentzako izateak batasuna emango lioke kaleari.</li> <li>• Oinezkoentzako ibilbide gehiago eskainiko lirateke.</li> <li>• Mugitzeko ohiturak aldatzea bultzatuko litzateke –autoa utzi eta ibiltzera pasa dadila jendea-.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kale osoa –inguruko kaleekin batera- iritsi-errazak izango lirateke.</li> <li>• Autoa erabili behar duenak errazago izango luke zerbait egitea –eta, beraz, gure dendetara hurbilduko litzateke. Abantaila hori nabarmenagoa da denda batzuetan –Eroski adibidez, bere ezaugarriengatik-</li> </ul>
<b>kontrako arrazoiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kaleak bizitasuna galduko luke –merkataritzaren ikuspegitik batik bat-.</li> <li>• Kale Nagusira egin behar desberdinak egitera datozenei (eta asko dira horiek) deserosotasuna sortuko zaie.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kalea zaintzea eta kontrolatzea eskatzen du horrek, autoak berriro kalea “okupatu” ez dezan. Eta bestetik, kontrol hori zaila da.</li> <li>• Tarte honetako dendarien egoera okerragoa izango da, beste tarteko dendarietara; desberdintasunak sortzen dira.</li> <li>• Kalea bitan geratuko litzateke banatuta.</li> <li>• Autoak aparkatzeko lekua parean duten dendak kaltetuta aterako lirateke.</li> </ul>

Bestetik, elkarrizketan indarra hartu duen **beste kontu bat** jasotzen dugu:

- **Aukera edozein izanda ere, aldaketak beldurra sortzen du;** ezin dugu aurreikusi aukera horietako edozeinek zein eragina izango duen dendarienezako, kaleko bizitzarako eta erosteko ohituretan.
- Horregatik, eta dendari eta ostalari garen aldetik, **“erabakiko dena gure sektorearentzako eta egunerokotasunerako ona izan dadila** bilatu behar dugu”, hori ere ona izango delako legazpiarrentzako.

Azkenik, eta talde honen joera bistaratzeko, gaurko tailerlean parte hartu duten pertsona gehienak aukera bataren edo bestearen alde egitera animatu dira. Hona hemen emaitza:



Aurrera goaz!

- Dendarien, ostalarien eta taxilarien ikuspegitik, zer eskatzen diogu kale berriari? Zer eduki behar du?

Parte hartu duen pertsona bakoitzari Kale Nagusiaren diseinu berrirako 3-4 elementu edo irizpide adieraz ditzala eskatu diogu. Irakurketa orokorra egin ondoren, ideia nagusi batzuk jaso ditugu:







Jasota geratzen da.

Idea guzti hauek haurrek, bizilagunek, udaletxeko teknikariek, ... azalduko dituzten ideiekin batzeko eta konbinatzeko ideiak dira... Guztiakin azkeneko proposamenerako edo proposamenerako oinarriak zehaztuko dira.

## 4. Hurrengo urratsak

Tailerra amaitzera goaz. Eta pozik egiten dugu hori taldearen elkarrizketa aberatsa, zintzoa, ñabardurez betea eta koloretsua izan delako, argudio eta arrazoi asko partekatu ditugulako eta Kale Nagusi berriaren diseinurako gauza asko eman ditugulako; asko da hori!

Arratsaldean Kale Nagusiko bizilagunen eta Agenda 21eko Foroaren txanda izango da. Eta, ondoren, Udalak jasotako ekarpen eta ikuspegi desberdinak irakurri eta interpretatuko ditu.

Beraz, datorren urriaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara egingo dugun tailerrean parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Tailer horretan lehenengo urrats hauen emaitza nagusiak azalduko dira eta Kale Nagusi berria diseinatzen jarraituko dugu.

**Eskerrik asko, atsegina izan da!**  
**Zain izango gaituzue urriaren 30ean**

Tarte honetan ideia berriak sortzen bazaizkizue, online Foroaren bidez bidal ditzakezue  
<http://www.legazpiko-udala.info/eu/bizi/garapen-iraunkorra-agenda-21/online-foroa>